

**ATARRABIAKO HILKETA.** Nafarroako Auzitegiak gehiago egin zitekeen aztertuko du

## Epaitegiek egindako lana ikertuko dute, Aristregiren hilketa dela eta

Ruiz de la Cuestak adierazi du ikerketa ez dela epaile jakin batzuen lana aztertzeko izango

Agentziak | IRUÑEA

Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak ikerketa abiatu du justizia administrazioak egindako lanaren inguruan, Alicia Aristregiren hilketa dela eta. Izan ere, Jesus Gil Pelaez hiltzaileak debekatua zuen emazte ohiarengana 500 metro baino gehiago gerturatzea; eta Aristregik 20 salaketa jarri

zituena —horietatik batzuk senar ohiak debekua urratu zuela adierazteko—.


Nafarroako Auzitegi Nagusiko presidente Rafael Ruiz de la Cuestak agindu du diligentsiak hasteko, baina, atzo bertan adierazi zuenez, ikerketa ez da epaile jakin batzuen lana aztertzeko izango, «justizia administrazioan funtzionamendu okerrik egin den ikertzeko baizik».

Aristregi babesteko badaezpada hartu ziren neurriak dira ikerketaren oinarria. «Ikusi nahi dugu ea epaileen aldetik gehiago egin zitekeen», azaldu zuen Ruiz de la Cuestak. Ildo horretan, Iruñeko Instrukzioko 4. Epaitegia, Familia Epaitegia eta Fiskaltza aztertuko dituzte ikerketan, horiek baitzuten Alicia Aristregik aurkeztutako salaketak aztertu eta bideratze-

ko ardura. Litekeena da ikerketaren emaitzak datorren asteko jakitea.

### «Epaileek ezin diote aurrea hartu gertatutakoari»

Aristregi babesteko hartu ziren neurriak egokiak ziren ikertuko dutela berretsi zuen, beraz, Ruiz de la Cuestak; «baina epaileek ezin diote inoiz aurrea hartu gertatutakoari, haien lana



JESUS DIGES / EFE  
Rafael Ruiz de la Cuesta —erdian eta zutik—

## AUGUSTO MAESO GIPUZKOAKO AUZITEGIKO PENALEKO BIGARREN ATALEKO EPAILEA

### «Hitz egiten hastean, emakumeak ez du jipoi bat soilik kontatzen»

Augusto Maeso epaileak dio emakumeen kontrako tratu txarrak amaitzeko bidea ez dela gizonei ezartzen zaizkien zigorrak gogortzea. Bere ustez, arazoa gizarte osoari dagokio, eta arlo guztietan egin behar da lan horrelakoak desager daitezten.

Eider Goenaga | DONOSTIA

Gipuzkoako Auzitegi bulegoan hartu gintuen Augusto Maesok, emakumeen kontrako indarkeriaz hitz egiteko. Galderak gogo onez eta interesez erantzun zituen, baina, segurtasun neurriengatik, argazkirik ez ateratzea nahiago izan zuen.

#### ■ Epaileek nahiko tresna badaukazue tratu txarren kontra egiteko?

Horrelako gertakariak izaten direla ikusi ondoren, nik behintzat pentsatzen dut arlo guztietan egin behar dugula zerbait. Guk bai, baina agian legegileak ere gehiago egin beharko luke. Guk bi tresna ditugu: epaiketa ondoren hartzen diren neurriak, batetik, eta salaketa bat jartzen denean, epaiketa aurretik, aurretiaz badaezpada har daitezkeen neurriak, bestetik. Zigorrei dagokienez, isunak eta presoaldiak jasotzen ditu Zigor Kodeak.

Gertakari hauek oso larriak dira, maiz gertatzen dira, ikusten ari gara kanpaina asko egiten direla, eta oraingoz ez da nahikoa arazoa bukatzeko. Agian ez da lortuko inoiz erabat amaitzea, baina hainbestetan

gertatzea ere... Hala ere, ez zait iruditzen zigor larriagoak jartzea konponbidea denik; uste dut beste alorretan egin behar dela lan: gizartean, hezkuntzan... Beti pentsatu izan dut hori, baina kasuak ugaritzen badira, pentsatu beharko dugu zigorrak handitzea.

#### ■ Heriotzak saihesteko, baina, aurretiazko neurriekin egin beharko litzateke lan handiena.

Bai. Prozedura Kriminaleko Legea duela bi urte aldatu zen, eta ordura arte emakumeen babesarako aurretiazko tresna horiek ez ziren espresuki jasotzen. Lehen, zalantzak zeuden. Batzuek pentsatzen genuen, legeak aipatu gabe ere, neurriak har genitzakeela; izan ere, behin-behineko presoaldia jasotzen bazuen, larritasun gutxiagoko neurriak zergatik ez? Horri buruz asko eztabaidatzen zen, baina orain eztabaidarik ez dago, Prozedura Kriminaleko Legeak espresuki jasotzen duelako.

Legeak jasotzen duenez, akusatuari debekua jar diezaiokegu zenbait toki, auzo edo herritara ez joateko, biktimarengana ez gerturatzeke... Horiek hartzen diren bitartean, instrukzioak ja-

rraitu egiten du. Neurriak poliziari, biktimari eta akusatuari jakinarazten zaizkio. Noski, erabaki hori hartzen badugu, akusatuari esan behar zaio zer gertatuko zaion hori hautsiz gero; izan daiteke neurri larriago bat jartzea edo bigarren delitu gisa hartzea.

Baina, noski, pertsona hori libre dago, ez dago kartzelan; eta kontrolatzeko oso zaila da.

#### ■ Eta neurri horiek nahikoak ez badira?

Har dezakegun neurri gogorrena behin-behinean espesetxean sartzea erabakitzea da, baina hori salbuespen neurri bat da; araudiak, orokorrean, pertsona horrek libre behar duela esaten baitu, errugabetasunaren printzipio dela eta.

#### ■ Emakumearengana gerturatzeko debekua gizonari jarri arren, zaintza emakumeari jartzen zaio, berak joan behar du babeseke etxe batera... Ez al da logikoagoa neurriak gizonari aplikatzea?

Bai, baina ez dago beste biderik. Izan ere, kasua epaitzen ez den bitartean, kontuan izan behar dugu akusatua non bizi den, lantokia non duen, haren ingurunea zein den...; beraz, soilik bik-

timarengana ez hurbiltzeko agin dezakegu. Oraindik ez da erruduna, eta legeak faktore horiek kontuan hartzeko eskubidea ematen dio.

#### ■ Tratu txarregatik salaketak jaso dituzten gizonak aske utzi eta hilketa egiten dutenean, erantzukizunaren zati handi bat epaileena dela diote emakume elkarteek.

Bai, epaileena eta gizarte osoarena. Horrelakoek pentsarazi egiten naute, eta neure buruari galdetzen diot ea gehiago egin dezakedan. Baina uste dut, horrelako zerbait gertatzen denean, epaileak eta kasuan parte hartu duten beste guztiak dutela erantzukizunaren zati bat.

#### ■ Emakume elkarteek diote Zigor Kodeak gai hau oso irekia uzten duela, epaileak nahi duena egin dezakeela neurriak hartzerakoan.

Bai, Prozedura Kriminaleko Legeak «epaileak badaezpadako neurriak ezarri ahal izango ditu» esaten du. Irekia da, baina justizian, zigorra ezarri edo badaezpada neurriak hartzerakoan, beti balorazioa egin behar da. Legeak kontzeptu abstratuak erabili behar ditu derrigorrez, eta gero guk aplikatu behar ditugu

kontzeptu horiek kasu jakinetan. Aplikazio horretan epailearen faktorea garrantzitsua da, berak egiten du interpretazioa, eta hor sartzen da bakoitzaren ideologia.

#### ■ Beraz, kontzientziario arloan lan egin beharko litzateke neurri horiek agintzen ez dituzten epaileekin?

Bai, eragileen kontzientziario oso garrantzitsua da. Nik uste dut ikastaroak egin beharko liratekeela gai hauek nola landu behar diren erakusteko; bai epaileekin, baina baita abokatu, fiskal, polizia eta beste sektore guztiarekin ere. Ziurrenik, gizartea arazo honekin kontzientziatzen doan neurrian, gu ere kontzientziatuz joango gara. Bidean gaudela esango nuke, baina justizian eta politikan, beste alor guztietan bezala, pertsona ezberdinak gaude, eta bakoitzak bere interpretazioa egiten du.

#### ■ Noiz izaten dira tratu txarrik gizona espesetxera sartzeko modukoak?

Tratu txarrik izan daitezke falta edo delitua. Faltzat hartzeko, nahikoa da behin gertatzea; eta delitua izango da lesioak daudenean, emakumeak tratamendu medikoa behar izan duenean edo tratu txarrik behin eta berri-berri ematen direnean. Falta batekin ezin daiteke espesetxeratu, soilik jarraipen bat izaten bada. Beste kasuetan espesetxeratu daiteke, baina betiere epaiketa baten ondoren. Bestetik, tratu txar psikologikoak ere delitutzat hartzen ditu Zigor Kodeak.

#### ■ Eta tratu txar psikologikoak nola frogatzen dira eta nola neurtzen dituzue?

Indarkeria psikologikoa zailagoa da antzematen, interpretazioari leku handiagoa uzten zaio, eta zalantza handiagoak